

noaua

Eguberriak iruditan

Joseba Sarrionandia:
“Felix Sarasola,
lapur handiak
eramandako laguna”

**Igande arratsaldean
gaztetxoentzako
zinema Sutegin**



Gordailu inertizatuak, erraustegiaren orde

GuraSOS: “Dagoeneko garatua den teknika bat da, gure ingurunean ere praktikatzen dena”

URDAIRA

Sagardotegia

Urtarrilaren 12an, **LARUNBATA**
IREKITZEN DUGU!!!
astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91

FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

noqua

DANTZA FILMA

SARRERAK SALGAI!!!

Urtarrilak 27, igandea
SUTEGI AUDITORIOAN
19:00

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan
NOAUA! Kultur Elkartean eta Lizardin.
Bazkideek 4 eurotan NOAUA!n bertan.

B&a
Inmogest -

FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA
ASEGURUAK

943 573 693
Eusko Gudari 35, ORIO

Albiste iruditzen

Eskuzabal portatu da Hurbilagoren Gabonetako zozketa

Usurbilgo bizilagunek tokiko merkataria eta ostalariei agerturiko konfiantzak eta Usurbilen bertan, bertako saltokietan kontsumitzeak sariak ekarri ohi ditu urte amaieran. 2018a ez da salbuespena izan. Eskuzabal portatu da herriko merkataria eta ostalariak biltzen dituen Hurbilago Elkarteak.

Abenduaren 31n ospatu zen 9. Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa antolatzearekin batera, lasterketa amaieran ere hainbat sari banatu zituzten frontoian, Hurbilagoren Gabonetako Zozketaren baitan.

Hurbilagoren Gabonetako Zozketa

- **Tabletak:** Beñat Eizagirre Arruti, Guillermo Rueda, Unai Zabala Tapia, Lorea Arantzazistroki, Elene Iparragirre.
- **Bizikleta:** Haritz Urdanpilleta.



Hurbilago elkarteko saltokietan xahutzeko 500 euroko saria Garazi Tapiari egokitu zitzaion. Hurbilagoko ordezkarien eskutik jaso zuen oparia.

- **Mozorro originalenari saria:** Antonio Jimenez.
- **Patina:** Xabi Santos.

- **Hurbilago elkarteko saltokietan xahutzeko 500 euroko saria:** Garazi Tapia.

Laburrean

Hilabete honetan goizez zabalduko dute KzGunea

Ikastaro hauek iragarri dituzte:

- **Urtarrilak 16-25, 9:00-11:00** "Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako".
- **Urtarrilak 21-22, 11:00-13:00** "Enplegu bat lortu".

Informazio gehiago: Kale Nagusia 37 / 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

Udal aurrekontuak, hasieraz onartuak

Abenduaren 20ko ezohiko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak gehiengo osoz, 12.055.173 euroko 2019rako udal aurrekontuak. Horrekin batera, baita 2019rako lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa. Xehetasun gehiago, datoren astekarian.

Xiberoko azken maskarada, Usurbilen

Igandean Urdiñarben eskainitako emanaldiarekin abiatu zuten Xiberoko Maskaraden 2019ko denboraldi berria. 15 herri zeharkatuko dituzte datozen lau hilabeteotan. Xiberoko Botza hedabideak aurreratu duenez, azken emanaldia Usurbilen izango da, ekainaren 16an.

noqua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitez Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Imanol Ubeda

Ilusionismo ariketa

“Iraganeko pasarte batek gehiago eragin zaitzake gerora”. Ugaitz Agirrearenak dira hitz hauek. Tximeletak bizkarrean (Susa) nobelaz luze-zabal ari ginen hizketan.

“Bere garaian, ez zen horretaz jabetzen. Gerora iritsiko da ondorio horretara. Konplexua da gaia”.

Sara bere nobelako protagonista ari zen Ugaitz. Gaztetan ondo itxi gabeko pasarte batek zer nolako eraginak izan ditzakeen gerora.

“Nobelaren jokia hor dago. Iraganera begiratzen dugu, baina orainaldiko betaurrekoak ipinita”.

Ilusionismo ariketa simple bat egin dezagun. Ugaitz Agirrearen ordez Harkaitz Cano iru-

dikatu; Sara Imanol kantariarekin ordezkatu eta Tximeletak bizkarrean (Susa) nobelaren tokian Fakirraren ahotsa (Susa) liburua ipini. Has gaitezen berriro:

“Iraganeko pasarte batek gehiago eragin zaitzake gerora”.

Harkaitz Canoren Fakirraren ahotsa (Susa) nobelak Imanol Larzabal kantariaren biografia du oinarri-oinarrian. 1986an, Yoyes ETako buruzagi ohiaren hilketaren ondorengo ekitaldian abestu eta gero, boikot garai luze bat ezagutu zuen kantari donostiarrak.

Ekitaldian parte hartu zuten bertsolariak ere mehatxatu egin zituzten herri sarrean. Hemen abesten baduzue, akabo zuen plazak.

“Bere garaian, ez zen horretaz jabetzen. Gerora iritsiko da ondorio horretara. Konplexua da gaia”.

Ortodoxo ala heterodoxo. Seme kutun ala traidore. Dena ala ezer ez. Horiek eta antzeko dikotomia bortitzak ezagutu ditugu. Ez da honelako idatzi batean argitzeko moduko hari-mataza. Konplexua baita.

“Nobelaren jokia hor dago. Iraganera begiratzen dugu, baina orainaldiko betaurrekoak ipinita”.

Kontestua inportantea da. Hori gabe, ‘argazkia’ ez da bete-betea eta horrek asko zailtzen du interpretazio-lana. Hala da. Baina gure buruari ipinitako tranpatxoa ere izan daiteke. Egindakoak (eta batez ere egin gabekoak) zuritzeko. Orainaldiko betaurrekoetatik begira, are bidegabegoa baita Imanol-ek pairatu behar izan zuena.

Ez dago atzera bueltarik ordea. Canoren nobela irakurtzen, behin baino gehiagotan pentsatu dut antzekorik: gustura irakurriko nuke 18 urteko gazte baten iruzkina. Garai hartako lekuko zuzena izan gabe, zein ondorioetara iritsi ote da? Nire kezka haratago doa. Oraingo gazteek nola epaituko gaituzte? Zer esango dute orduko “gatazka garaiaz”? Eta gutaz, gure belaunaldikoez zehazki, zer pentsatuko dute? Gustura entzungo nituzke euren hausnarketak.

Tira. Arrazoi du Ugaitz Agirrek. Iraganeko pasarte batek gehiago eragin zaitzake gerora. Bistan da.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Euskararen erabilera sustatzeko plan berria

2018-2022 urte arterako euskararen erabilera normaltzeko seigarren plana onartu zuen udalbatzak aho batez, abenduaren 20an egin zuten ezohiko osoko bilkuran.

Egitasmo hau lantzeko Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) laguntza jaso du Udalak eta “udal langileen eta ordezkarien parte-hartzea izan du”. Gai honi lotuta eginiko diagnosian oi-

narriritu landu da hurrengo lau urteotarako plan berria. Planak 2022ra arte, urtez urteko ekintzak bilduko dituen kudeaketa plan bat izango du.

Helburu nagusi bat du plangintza berri honek; “Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hiz-

kuntza eskubideei erantzun ahal izateko”.

Horretarako hiru lan ildo nagusi proposatzen dira administrazio barrura begira eta herritarrek administrazioarekiko duten harremanei dago kienean. Batetik, “herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz”. Bigarrenik, “euskara

beste administrazioekiko harremanetarako hizkuntza izan dadin bermatzea”. Eta azkenik, “euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea”.

Plangintza jasotzen duen txostenak, euskarak udalean zer toki duen adierazten du eta “hura hobetzeko zer pauso eman behar diren”. Hurrengo lau urteotako helburu estrategikoak finkatzen ditu.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu nol. 78 USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
Info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

Bertako ostalari eta merkatarien alde lasterka

Tokiko merkataritzak eta ostalaritzak ez du bide-lagunik falta Usurbilen. Lagun mordoa bildu zuen beste urte batez, abenduaren 31ko 9. Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketak.

Herriko komertzio guneari bi itzuli emanaz bertako denda txikiei babesa adierazi zieten belaunaldi ezberdinetako herritarrek; haur, gazte eta heldu ikusi genituen lasterka bizian. Batzuk lagun artean, besteak familia giroan. Bidean zehar lasterketarekin bat egitera animatu zenik ere izan zen.

Giro ederrean egin zuten itzulia; gabonetako zuhaitza soinean zeramala ikusi genituen bi lagun. Edota 2019ra jarritakorik ere izan zen. Orbeldi Dantza Taldeko bi kideek apirilaren 13an ospatuko den 7. Dantza Eguna iragartzen zuen kartelarekin osatu zuten ibilbidea.



Abenduaren 31n, haur, gazte eta heldu ikusi genituen lasterka bizian. Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketaren ondoren egin zen sari banaketa.

Ika-mika

Eskerrik asko Hurbilagori laguntzen dioten guztiei

Urte berri on usurbildar guztioi. Uxue eta Andde gara, Olentzeroren laguntzaileak; usadio zaharra zainduaz, haurren eskutitzak jasotzen ditugu, gero Olentzerori eskaintzeko.

Gaurkoan Olentzeroren eskutitz bat dakarkigu, usurbildarrei zuzendua; honela dio: "Eguberri eta Urte berri on: Nere belarrietara iritsi zait herrian Hurbilago izeneko elkarte bat dagoela, gabonetan lan eta lan aritzen dena, Usurbilgo herritarrek gabon jai zorionsu eta alaiak igaro ditzaten. Herriko kaleak argiz girotzen. Ni, Olentzero, zuen

herrira iristen naizenerako, bertan egiten didaten harrera goxoa eta beroa prestatzen, joaldunekin, jentilekin, galzagorriekin eta herritar bolondres askorekin.

Badakit Usurbilgo herri gunean haurrentzako gabonetako parke erraldoi bat ere jarri dutela, hainbat eta hainbat jolas, atrakzioak, eta abar luzea. Eta nola ez, urtea kirol pixka bat eginez amaitu nahi dutenentzako, San Silbestre herri lasterketa antolatu, partaideentzako opariak prestatu eta herritarrei eskainitako zenbat gauza on gehiago ere.

Ondorengo guztia eskertu

nahi diot Hurbilago elkarteari:

Egiten duzuen lana; herriari bizia emateko egindako ahallegina. Komertziorik, ostalaritzarik, enpresarik eta abar luze bat, halako aktibitate eta zerbitzurik gabeko herri guneak tristeak dira oso.

Hau guztia posible egiteko ipintzen duzuen denbora eta dirua.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet baita ere, herritarrei, Udalari, udaleko langileei, eta modu batera edo bestera, ekintza horietan Hurbilagori laguntzen dioten guztiei.

Azkenik, eskaera bat ere

bai. Usurbilgo talde eta herritar modura, saiatu zaitetze, bakoitzak ahal duen neurrian, Hurbilagokoek, Usurbilgo dendariak, tabernariak eta bertako enpresek sortzen duten herri bizitza horri eusten, herrian bertan kontsumituz.

Konpromiso hori hartzen badugu, urteetako herri bizitza izango dugu eta Olentzeroren etorrerak, aurtengoa bezain polita izaten jarraituko du, edo oraindik eta ederragoa.

Urte ona opa dizuet, laster arte. Olentzero".

Uxue eta Andde

Emakumeentzako ahalduntze ikastaro berriak

Bi ahalduntze ikastaro berri Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailaren eskutik, urtarriletik apirilera:

■ Biodantza: Elen Kortaxarenarekin. Urtarrilaren 11tik apirilaren 12ra, ostiraletan, 16:45-18:15 artean Oiardo Kiroldegian. Euskaraz.

■ Emozioak eta ahalduntzea: Pepa Bojo psikologoarekin. Urtarrilaren 10etik apirilaren 11ra, ostegunetan, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Erdaraz.

Izen ematea:

Usurbilgo Udaleko Parekidetasuna Saila, 943 377 110, parekidetasuna@usurbil.eus



Elen Kortaxarenak biodantza ikastaroa eskainiko du Oiardo kiroldegian. Argazkia: guraso.eus

“Oreina” Feroz sarietarako izendatua

Espainiako zine informatzailleen elkarteak urtero banatu ohi dituen Feroz Sarietarako hautagaien artean sailkatu dute Aginagan eta Usurbilen iaz grabatu eta iraila amaieran estreinatu zuten “Oreina” filma. Koldo Almandoz zinegile donostiarrak zuzendutako lana, Sari Berezia jasotzeko hautagaien artean izango dela iragarri dute, “Con el viento”, “Dhogs”, “El Rey”, eta “Entre dos aguas” filmekin batera.

Feroz Sarietan, film, telesail, zuzendaritza, aktore, gidoi, musika, kartel eta dokumental onenak ere saritzen dituzte urtero. Sari banaketa ekitaldia urtarrilaren 19an ospatuko da Bilbon, Bilbao Arena Kiroi Jaurdean.

“Dantza” filma, urtarrilaren 27an Sutegin

Txintxua Films-ek ekoitzi zuten “Oreina”, baita Telmo Esnalek zuzendutako “Dan-

tza” ere eta bertan Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldeak parte hartu zuen. Abenduaren 21ean estreinatu zuten zinemetan, eta urtarrilaren 27an Sutegin ikusi ahal izango dute 19:00etan NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik. Sarrerak aurrez eskuratu ahaliko dituzte NOAUA!n bertan eta Lizardi liburu dendan 6 eurotan. NOAUA!ko bazkideek (bazkide bakoitzeko sarrera bat) 4 eurotan NOAUA!n bertan.

Talde berria osatu da Andatza-ren baitan

Azkenean erreleboa izango du Andatza M.K.T.-k. Talde berri bat osatu da Usurbilgo mendizaleen bilguneari segida emateko. Honenbestez, 2.019rako mendiko federatu txartelak Andatza bidez tramitatu ahaliko dituzte. Ekintza ezberdinak antolatzeko asmoa date gainera. Xehetasunak datorren aste-karian. Informazio gehiago: andatza.com

Kantu Taldearen ikasturte berria abiatzera doa

Urtarrilaren 14an itzuliko da ohiko jardunera Usurbilgo Kantu Taldea, ikasturte berriari ekinez. Ohiko egun, ordu eta tokian batzen segiko dute; astelehenero, 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan.

Urtarrilaren 26ko jira, eguerdiz

Hilabeteko azken larunbatean ospatuko dute bestalde, kantu-jira. Oraingoan eguerdian; urtarrilaren 26an abiatuko dira 12:30ean Mikel Laboa plazatik.



Urtarrilaren 14an hasiko dituzte entseguak Agerialden.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA
MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

Bazterketa arrisku egoeran diren pertsonak babesteko egitasmo berriak abiarazi dituzte

Beterri-Buruntza eskualde honetan bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzenduriko zenbait erabaki hartu zituen udalbatzak aho batez, abenduaren 20an egin zuten urteko azken osoko bilkuran. Batetik, gizarteratu eta laneratzeko programaren zerbitzua emateko hitzarmena onartu zuten. Horrekin batera, pertsona hauei zuzenduriko tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuak emateko araudi eta hitzarmena.

Gizarteratu eta laneratzeko programa

Beterri-Buruntza eskualdean bazterketa egoeran dauden pertsonentzako gizarterate eta laneratzeko zerbitzu berri bat abiatzeko hitzarmena onartu



Bi hitzarmen sinatuko dituzte Beterri-Buruntzako udalek, eskualdean gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak laguntzeko.

zuen udalbatzak. Lau urteko iraupena izango du. Lasarte-Oriak izan ezik, beste bost udalerrik sinatuko dute hitzarmena; Andoaingoak, Astigarragakoak, Hernanikoak, Urnieta eta Usurbilgoak.

52.875 euroko ahalegina

Bost udalok, guztira 52.875 euroekin finantzatzeko dute

egitasmoa. Modu honetan: %60ko kuota finko baten bidez (udal bakoitzak 6.345 euro ordainduta), gainerako %40a udalerririk bakoitzeko biztanleria kopuruaren arabera kalkulatu den kuota aldakorraren bidez (Usurbilgoak 2.473,39 euro ordaindu beharko ditu).

Honenbestez, Usurbilek guztira 8.818,39 euroekin finan-

tzatuko du egitasmoa. Egitasmo hau kudeatzeko ardura urteroko hitzarmena sinatu duen udal batek hartuko du bere gain, eta ardura txandakatzen joango dira gero. Usurbilgo Udalak 2021-22 artean kudeatu beharko du proiektu hau.

Egitasmoa aipatu udalen enplegu eta gizarte ongizate sailen elkarlanaren isla da.

Tutoretzapeko etxebizitzak

Aipatu moduan, Beterri-Buruntzan bazterketa arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuak emateko hitzarmena eta araudia onartu zituen udalbatzak aho batez, abenduaren 20ko osoko bilkuran.

Eskualdeko sei udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) babesturiko hitzarmenari dagokionez, “adostasun-esparru bat finkatu nahi da, Buruntzaldean bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuetan alojamendu-zerbitzuak emateko”. Lau urteko iraupena izango du.

Hitzarmenarekin batera, gai honi lotutako arautegia hasieraz onartu zuen udalbatzak

ahoz batez, abenduaren 20ko ezohiko osoko bilkuran. Erabaki honi lotutako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, 30 eguneko epean jendaurrean jarriko da ikusgai, interesdunek erreklamazio edo iradokizunak egiteko.

Zerbitzuaren hartzaileak, helburuak, sartzeko prozedura, epeak, baldintzak, koordinazioa nolakoa izango den, erregimen ekonomikoa, zerbitzua ordaintzeko era, informazioa udalen artean nola partekatu, zerbitzuaren jardueren zerrenda eta udaleko zerbitzuan duten diruzko partaidetza zehazten ditu araudiak, besteak beste.

Arautegi honek ohartarazten duenez, “kolektibo berriak

daude bazterketa-arriskuan”, azken urteotako krisi ekonomikoa ondorioz; enplegu-galerari, enpleguaren kalitate baxu edo baldintzekin lotutako kolektiboak, babesa bilatuz beste leku batzuetatik iritsitakoak... Edota alokairu sozialera bideratu ordez, jabetzara zuzendutako etxebizitza-politikaren eraginez bazterketa arriskuan direnak.

Inklusiorako alojamenduak

Urrats berri bat emango dute udalek egitasmo honekin. Hernani eta Lasarte-Oriako gizar-te inklusiorako alojamendu bana eskainiko da; Hernaniko harrera pisua izango da, Lasartekoa emantzipaziorako. “Aurrenekoan 6 hilabete pasa ondoren, erabiltzailea bigarrena pasako da”, ohartarazi

dute egitasmo honen sustatzaile diren Beterri-Buruntzako udalek. “Pisu horietara sarbidea, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herritarrek izango dute”. Eta bertan “laguntza teknikoak jarriko dira zerbitzua gainbegiratzeko eta bitartekaritza, tutoretza eta laguntza emateko”. Alegia, eskualdeko udalak giza baliabideak eta baliabide materialak jartzeko konpromisoa hartzen dute.

Egitasmo honekin, “gizarte bazterketarako arriskuan aurkitu daitezkeen herritarren egoerak ez areagotzea, trantsizio-prozesuak ahalbideratzea, eta ahal den neurrian, egoera normalizatzeko bideak jorratzeko aukerak gauzatzea da” asmoa.

Hitzartu plana, foru agintarien esku

Foru agintarien esku dago jada, urtebetez GuraSOsek abian izan duen Hitzartu parte hartze prozesuaren baitan, Gipuzkoako herritar, eragile eta aditu hainbatek landu eta diseinatu duten 2019-30 urte arterako Gipuzkoako Udal Hondakinen Kudeaketa Plan Alternatiboa. Hondakinen errausketa alboratzen duena, Europako zuzentarauak edota guztion ingurumen zein osasunarekiko errespetua adierazten duena, eta garrantzitsuena; 2016an iragarri arren, Foru Aldundiak gipuzkoarrei ukatutako hitza hartuz, herritar, eragile eta adituek auzolanean landutakoa izan den plana.

Urtarrilaren 4an erregistratu zuen GuraSOsek Hitzartu plana, Donostiako Gipuzkoa plazan kokatua dagoen Foru Aldundiaren egoitzan bertan. Bertara, Bulebarretik hasita Gipuzkoa plazaraino egin zuten desfilean ekarri zuten haurrek “GuraSOS” eta “Gipuzkoa +” aldarridun kartelak eskutan, udal hondakinekin dugun gatazka, elkarrizketaren bidetik eta gipuzkoarrak aintzakotzat hartuta adostasunez konpontzeko, azken urtean auzolanean diseinatu den etorkizunearako bide-orria.

“Ez gatoz liskar bila, proposamenak egitera gatoz, urte luze batean egindako lan bat



Donostiako Gipuzkoa plazan eginiko agerraldiaren ostean erregistratu zuten haur eta gurasoek sinaturiko Hitzartu plana Diputazio barruan.

GURASOS

“Legez eta giza legez agintariei 2016. urtean egitea tokatu arren, egin ez zutena guk egin dugu herritarren bultzadarekin, parte hartze prozesuak eginez”

ekartzera gatoz”, zioen GuraSOseko lehendakari Joxe Mari Izetak urtarrilaren 4ko ekitaldian. Argi zioen moduan, “legez eta giza legez agintariei 2016. urtean egitea tokatu arren, egin ez zutena guk egin dugu herritarren bultzadarekin, parte hartze prozesuak eginez. Herritar guztion indarrak batuz, eta haurren babesa, beraien osasuna eta etorkizuna bermatzeko benetako plan alternatibo bat prestatu dugu”.

Gizarteak berea duen inguru-

men eta osasuna babesteko GuraSOS Gipuzkoan egiten ari den ahalegina, ez da ahalegin isolatu bat, Joseba Belaustegik ekitaldi berean gogorarazi zenez. AEB, Holanda, Norvegia, Kolonia, Australia eta munduko beste hainbat herrialde jarri zituen adibide gisa. Munduko txoko anitzetan, “gure haurrentzako etorkizuna eta ingurumena babestea eskatzen ari dira”.

“Nortzuk daude horren kontra?”, galdetzen zuen Belaustegik. Esaterako, erraustegiei oso lotuak dauden petrolio-enpresak. “Plastikoa petrolio da, plastikoa erretzea komeni zaie”. Argi zioen, aurrean “harresi gogorak ditugu. Entzungorrenak egiten ari dira, badirudi ez diegula min edo kalterik egiten, gezurra da ordea. Harrizko horma hauek paperezkoak dira, gizarteak du ateak ireki eta za-

baltzeko indarra. Gaur haurrek emango dute lehen pausoa”.

Bilera eskaera eta mahai soziala eratzea

Gipuzkoa plazan haurrek eginiko agerraldiaren eta dantzarien aurrekuaren ostean erregistratu zuten, haur eta gurasoek sinaturiko Hitzartu plana Diputazio barruan. Hedabidei ez ziguten GuraSOS-ekin batera, gipuzkoar guztion den etxean, Foru Aldundiaren egoitzan sartzen utzi. GuraSOS-ek helarazitako argazkiei esker izan genuen, Aldundi barruan Hitzartu plana erregistratu zuten unearen berri.

Hiru eskaera luzatzen dizkiote Foru Aldundiari; Aldundiak berak landu duen 2019-30 urte arterako hondakinen kudeaketa planaren harira, Gipuzkoako Batzar Nagusietan egitekoak diren eztabaida geldiaraztea, “gizartearen eta erakundearen artean dagoen distantziamentu eta konfiantza falta berbideratzen hasteko”. Horrekin batera, Hitzartu sustatu duen ordezkari talde batekin biltzea eskatzen diote foru agintariei, “lan-prozesua eta emaitzak aztertzeko”. Azkenik, gizarte eta erakundearen arteko mahai sozial bat eratzea galdetzen dute, akordio zabal batean oinarrituta, hondakinen kudeaketa jasangarri eta osasuntsu baten alde elkarlanean aritzeko.

“Ez dugu ulertzen nolatan ez zareten etorri gaurko hitzordura”

GuraSOsek Gipuzkoako foru agintariei eskura eman nahi zien Hitzartu plana urtarrilaren 4an, baina ez ziren hitzordura agertu. “Ez dugu ulertzen nolatan ez zareten etorri gaurko hitzordura”, adierazi zuen gaztetxo batek irakurri zuen adierazpenak. Ez dute ulertzen ezta, azken hiru urteotan foru agintariekin haien

gurasoekin biltzeari uko egin izana. “Gogor lan egiten ari dira gu babesteko, baina halere mespretxatu egiten dituzu jarrera horrekin”, aurpegiratu zien Gipuzkoan agintzen ari direnei. Gogorarazi zenez, “aldiz, ez duzue inolako arazorik erraustegien elkarteekin biltzeko”. Foru agintarien jarrierak nola sentiarazten zituen

ba ote zekiten galdetzen zuen. “Andoain, Lasarte, Usurbil, Zubieta, Añorga, Urnieta, Errekalde, Hernani, Astigarra, Aieta, Benta Berri, eta abarreko haurrok sentitzen dugun beldurra imajina dezakezue? Ikustezinak ote al gara? Bihozgabeak al zarete? Enpatia eta lankidetzaren erakusten dizkigute eskolan. Utziko al diozue

behingoz, hauteskundeetan notarik onenak nork ateratzen dituen harropuzteari?”.

Urte berrirako eskaera argia helarazi zieten. “Berme Batzordeak berak ere eskatu dizuen bezala, gure gurasoekin bil zaitezte eta guztien artean itzul diezaguzuela lasaitasuna berreskuratzeko dugun eskubidea”.

“Gordailu inertizatuak”, erraustegiaren ordeztuak

Gordailu inertizatuak “ez dute lixiabiaturik sortzen, ezta usain eta metanorik ere”. Ez dute ingurumena kutsatuko, ezta guzuztion osasuna kaltetuko ere. Ez dira biodegradagarriak, “beste gai batzuegan ez dute eragin negatiborik”. Ez dira disolbagarriak, “ez erregai, ezta fisikoki edo kimikoki erreakzionatzeko gaitasuna” ez dute. Kimikoki edo biologikoki eraldatzeko gaitasun eza dute.

“Gordailu inertizatuak” ditugu, erraustegia alboratu eta ohiko isurketen bidea ordeztatu duen alternatiba. Hondakinak inertizatu eta “DK II” motako gordailuetan biltzean oinarritzen da. Tratamendu Mekaniko-Biologikorako (TMB) planta batekin bateragarria litzateke alternatiba hau eta “Zubietako lantegian instalatua izan daiteke, gaur egun aurreikusia dagoena funtzio berrira bideratuz”.

Abenduaren 29an aurkeztu zuen GuraSOsek Hernaniko Oronako auditorioan antolatu zuen jardunaldiaren baitan, erraustegia eta zabortege berrien eraikitzea alboratzen duen proposamen berri hau. Hondakinaren kudeaketarekin



Bizkaiko Foru Aldundiak metodologia hau jarri du martxan Artigas instalazioetan, GuraSOsek abenduaren 29ko agerraldian aditzera eman zuenez.

GURASOS

Tratamendu Mekaniko-Biologikorako (TMB) planta batekin bateragarria litzateke alternatiba hau eta “Zubietako lantegian instalatua izan daiteke, gaur egun aurreikusia dagoena funtzio berrira bideratuz”

Gipuzkoan dugun gatazkari irtenbide adostu bat emateko, Hitzartu prozesuaren baitan,

azken urtebetean herritar, eragile eta adituek diseinatu duten bide-orriak jasotzen duen alternatiba dugu honakoa. Bide-orria bera plazaratu zuten hitzorduan; 2019-2030 urte arterako Gipuzkoako Udal Hondakinak Kudeatzeko Plana alegia.

“Residua Consulting” enpresako Antton Lete eta Iñigo Iriyoyen teknikariek ondu duten planak bestelako planteamendu bat egiten du 2030. urtera arte. “Aurrez bioegonkortutako udal hondakinak, “gordailu inertizatu bidez kudeatzea,

zigilatutako eta isolatutako gelaxketan”. Instalakuntza honek, “gaur egun martxan diren instalazioak erabil ditzake eta beraz, ez da beharrezkoa lurzoru berriak okupatzea”.

Aurkezpen saioan zehar zehaztu dutenez, “dagoeneko garatua den teknika bat da, gure ingurunean ere praktikatzen dena”. Gugandik gertu, Bizkaian. Herrialde horretako Foru Aldundiak Artigas instalazioetan halako gelaxkak jarri berri dituela nabarmendu du GuraSOsek.

Errausketa eta ohiko isurketa bideak alboratzen ditu

Ingurumenaren eta ekonomia-aren ikuspegitik eredu iraunkorra dela defendatu dute. Europako zuzentzauekin bat datorrena, osasuna eta ingurumena babesten duena. Alternatiba honekin, erraustegia edota zabortege berrien aukera baztertzen dute honenbestez. “Ohiko isurketari uko egiten diogu bertatik eratortzen diren ingurumen eta osasun arazoengatik. Erraustea baztertu egiten dugu, orain arte identifikatutako isuri toxikoekin

batera, gaur egun oraindik identifikatuak ez diren plastikoa erretzeak sorturiko deribatuek daudelako eta osasun segurtasuna bermatzen duten azterketarik ez dagoelako”.

Plastikoez jada ingurumen arazo larria sortu dute

Plastikoez erraustearen eraginez buruzko azterlanik ere ez dagoela ohartarazten dute, plastikoen fluxua Estatuaren osasun eta ingurumen kontrolpetik at mugapen handirik gabe eboluzionatzen doan ho-

netan. Plastikoez jada “planeta mailako ingurumen arazo larria” sortu dutela gogorarazi zuten Oronako jardunaldian.

“Teknologia berritzaileetan inbertitu behar dugu”

Europako Batzordeak errealitate honi aurre egiteko estrategia plazaratu zuten urte hasieran. Bertako lehen presidente orde den Frans Timmermans hitzak ekarri zituen gogora jardunaldian, GuraSOsek. “Plastikoez uretara eta elikagaietara iristen jarraitzea

eragotzi behar dugu, baita gure organismora ere.

Epe luzerako irtenbide bakarra hondakin plastikoez murriztea da, birziklatzea eta berrerabiltzea gehituz. Erronka hori herritarrek, industriek eta gobernuek elkarrekin egin behar dute... Teknologia berritzaileetan inbertitu behar dugu, herritarren eta ingurumenaren segurtasuna zaintzen dutenak, industriaren lehiakortasuna mantentzen duten bitartean”.

Berme Batzordeak Foru Aldundiari: “Hitzartu gizarte-ekimenaren ordezkarezekin bil daitezela”

GuraSOsek duela urtebete abian jarritako Hitzartu ekimenak, parte hartze prozesua bera jarraitu eta gainbegiratu duen organo bat izan du, aurpegi ezagun hauez osaturiko Berme Batzordea; Garbiñe Biurrun magistratua, Juan Jose Alvarez eta Esther Larrañaga Zuzenbideko katedraduna, Pedro Ibarra Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu ohia, Ernesto Ganuza IESA-CSICeko ikertzailea eta Bernardo Atxaga idazlea.

Berme Batzordeak Hitzartu prozesuaren gaineko ondorioak plazaratu zituen abenduaren 29ko jardunaldian. Eskaera argia luzatu zieten Batzar Nagusietako Presidenteari, talde politikoei eta Ahaldun Nagusiari. “Hitzartu gizarte-ekimenaren ordezkarezekin bil daitezela; landutako prozesua eta emaitzak aztertu ditzatela; eta elkarlanerako lerroak ireki ditzatela hondakinen kudeaketa jasangarria eta osasuntsua lortzeko helburuarekin, adostasun sozial zabalean oinarrituta”.

Hitzarturi dagokionez, Berme Batzordearentzat parte hartze prozesuak “emandako hitza bete du eta hasieran ezarritako helburuak egoki erantzun ere bai, hau da, hondakinen kudeaketa jasangarriaren



Berme Batzordeko kideak hauek dira: Garbiñe Biurrun magistratua, Juan Jose Alvarez eta Esther Larrañaga Zuzenbideko katedradunak, Pedro Ibarra Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu ohia, Ernesto Ganuza IESA-CSICeko ikertzailea eta Bernardo Atxaga idazlea.

HITZARTU PROZESUA

“Emandako hitza bete du. Hondakinen kudeaketa jasangarriaren inguruan eztabaida publikoa sortzea eta neurri politiko egokien inguruan hausnarketa kolektiboa egitea”

inguruan eztabaida publikoa sortzea eta neurri politiko egokien inguruan hausnarketa kolektiboa egitea”. Azpiegituren azterketa ekonomiko eta tekniko errealista egin duela ere aitortzen dio.

“Prozesu gardena”

Prozesu gardena izan dela dio Berme Batzordeak, zentzu demokratiko sakonekoa. Prozesuaren funtsezko ardatz izan direla nabarmentzen dute, “parte hartzaile ororen lana, denbora eta ekarpenak”.

Hitzartuk Europak ezarritako “Step by Step” (urratsez urrats) metodologia segi eta horrek eztabaidarako eremu anitzak ahalbidetu dituela, herritar orori irekitakoak, nabarmentzen du Berme Batzordeak. Honenbestez, askotariko ahotsak, “ezinbesteko hiru ezagutza uztartu ditu; herritarra, militantea eta aditua”.

Hitzartu prozesuari azken bultzada emateko deia

Parte hartze prozesuaren lanketarekin egin bezala, Hitzartuk eragindako gastuei ere auzolanean egin nahi die aurre. Guztira, 80.000 euro behar ditu GuraSOsek. Crowdfunding kanpainaren bidez edo azken hilabeteotan salgai jarri dituzten babes-kutxeki esker, dagoeneko %75eko babes ekonomikoa bildu dute: 50.593.55 euro.

Babes kutzak salgai

10 eurotan eskura ditzakezue, Lizardi, Laurok, Otargoxo, Kaffa, Txalaka, Iturralde botika, Iratze naturdenda, Ines ileapaindegia, Intza ileapaindegia, Ixabel Estetika Zentroan eta Lurda Kinkildegian. Diru ekarpenak ere egin daitezke, bideotatik: Laboral Kutxa: ES05 3035 0140 33 1400031124
Kutxabank: ES83 2095 5060 10 9117692165.
Informazio gehiago: gurasos.org

Otsaila amaieran manifestazioa Donostian

Hitzartu plana foru agintarien esku uzteko urtarrilaren 4ko ekitaldiaren amaieran iragarri zuen GuraSOsek; Gipuzkoa manifestatzera deitu zuen otsaila amaieran Donostian bertan. Egun zehatza laster plazaratuko duten arren, Antiguako

tuneletik abiatuko dela aurreratu zuten. “Herritarrok esango diegu une honetan agintean daudenei nola nahi ditugun gauzak; hitz eginda, elkarrizketaren bidetik eta akordioak lortuz, baina beti ere gizartea eta herritarrak kontuan hartuta”.



Antiguako tuneletik abiatuko da.



Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa

“Denon oroimenean biziko haiz”



Bihotzeko ebakuntza egin zioten Felix Sarasolari baina ez zuen osatzerik izan.

Abenduaren 15ean hil zen Felix Sarasola sukaldaria. 72 urte zituen. Bi egun beranduago

lur eman zioten Usurbilgo hilerrian. Antton Aranburuk bertso batzuk kantatu zituen bertan. Arratsaldeko hileta-eliz-

kizunean ere kantari aritu zen Aranburu. Bateko zein beste-ko bertso-sortak batu ditugu orrialde honetan.

Hemen gaituzu, Jauna,
zure hur-hurrean
gure senide honen
azken agurrean
deus gutxi gara geure
luze-laburrean
aldiz ezer ez zure
begien aurrean.

Egunaren ondoren
hor ilunabarra
munduko pozaldiak
berekin negarra,
hauxe da, Jauna, gure
poztasun bakarra:
Zuregan jaio, bizi
eta hil beharra.

Gure gaurko bizitza
hain da atsegina
nahiz inorentzat ez den
betiko egina
ezin dugu saihestu
heriotz samina
baina zu zara, Jauna,
gure bizimina.

Ibili haiz itsasoz,
ibili haiz mendiz
hire bihotz handiak
egin al dik gaindiz?
nahiz ez haugun gehiago
ikusiko begiz
denon oroimenean
biziko haiz Pelix.

Felix Sarasolaren aldeko hileta-elizkizunean kantatutako bertsoak. Egilea: Antton Aranburu.

Pelix Sarasola

Hik behar al huen izan aurtengo azken horbela? Kubara al hoa, Pelix, beste askotan bezela? Beti izana haiz ausart edozertarako kapaz baina gaur nongo etxetan joko duk atea kaxkax?

Bakoitzak diagu gure denbora eta aroa gaur ere abiatu haiz baina nora, nora hoa? Guretzat oraina, Pelix, eta hiretzat geroa hartu eta goza ezak etxeko lur oparoa.

Hi izan haiz beti, Pelix, gure kapitan pilotu zein lurralde jo duk begiz edota zein itsasportu? Norbait egongo duk, Pelix, norbait, han nonbait, hire zain beti izan haizelako itsasontziko lemazain.

Bakoitzak diagu gure denbora eta aroa gaur ere abiatu haiz baina nora, nora hoa? Guretzat oraina, Pelix, eta hiretzat geroa hartu eta goza ezak etxeko lur oparoa.

Antton Aranburu
Abenduaren 17an, Usurbilgo hilerrian habanera doinuan kantatutakoak.

ARRANDEGIA
PELLO
ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

Otar-Goxo
El ik a g a i a k
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

“Felix Sarasola, lapur handiak eramandako laguna”

Habanako Bonbilla Berdean omenaldia egin diogu Felixi San Tomas egunean, urtero bazkaria antolatzen zuen egun berean. Ruper Ordorikaren *Lagunaren heriotza* entzun dugu lehenengo, Luigi Anselmiren letrarekin: “Lapurra sartu zaigu gaur etxean / guztion ixilean... / Oso trebea bide da / lapur zital hori, / ez baitu dirurik, / harribtxirik/ edo holako ondatsun hutsalik / eraman. / Gure altxor preziatuenera / jo du zuzenean / eta artoski gordetzen genuen / adiskide-bilduma tipitik / ale ordezkazina / ostu digu”.

Unai Muñoa eta Ander Lizarralderen bertsoak entzun dira, Jorge Romero irten da gero dezima batzuk leitzen, Ray Fernándezek *El ausente* abestu du, Daniel Chavarria beste lagun aurten ostuaren ipuina, *La tortilla escalonada*, Felixen antza duen Pepe Olavarría sukaldariari buruzkoa eta Felixi eskainia. Jade bikoteak modu hunkigarrian interpretatu ditu *Eperra* eta, Pancho Amat treseroarekin eta Rayrekin, *A caballo vamos pal monte*, Felixi gustatzen zitzaion son montunoa. Eta *Txoria txori*.

Bonbilla Berdetik irtenda, batek gogoratu du ezagutu zuela Felix aspaldian, sasoi behelainotsu hotzean, *Muebles Intxausti* dendako eskaparete argitsuko Belen bizian San Jose egiten, asto eta behi bizien alboan.

Beste batek Bermeoko atunontzia gogoratu du Afrika menbaldeko itsasoan, barkuko sukaldaria Felix, eta behin itsas kolpe batek ur zakarrera bota zuela. Felixek igerian jakin ez eta beltz senegaldar batek egin zuen kareletik salto. Soka bat bota zieten eta biak salbatu ziren.

Hala esaten zuen ez ziela fundamendu handirik antzema-



San Tomas egunean, omenaldia egin zioten Kubako Habanan. Joseba Sarrionandiak gidatu zuen ekitaldia. Argazkia: www.resumenlatinoamericano.org

JOSEBA SARRIONANDIA

“Felixen etxea zen euskaldunentzat enbaxada Habanan. Nori ardura zitzaion ‘Zulueta’ eta ‘Cárcel’ izkinako jauregi erraldoi ederrustekoa, Felixen apartamendu txikia zabalik bazegoen!”

ten ez erlijioari ez arrazismoari, baina bizitzatik ikasten jarraitu zuen Felixek, hala nola inmigrantea izatetik. Karibeko kosta atlantikoan jarraitu baitzuen beste barku batean eta behin, lehorreratzea otu eta New Orleansen geratu baitzen. New Orleansetik New Yorkera, eta bi-hiru urte eman zituen New Yorken, brasildar janariko jate-txean lanean, paperik gabe.

Orduan, betirako Estatu Batuetan geratzea eta Euskal Herrira itzultzea erabakitzeko puntua heldu zitzaiola kontatzen zuen Felixek. Eta euskalduna zela erabaki zuela, ez jatorriz bakarrik, baizik eta euskalduna izan nahi zuela. Eta Usurbilera bueltatu zela, Mikel Laboa eta Argiakoekin, Jose Anton Arze eta Babatxikikoekin, Jose Luis Zumeta eta lagun zituen beste askorekin. Euskal Herria egiteko egunik egun, eta

mundua egiteko.

Euskal Herriko portuetako baforeek bezala, hara eta hona eginez, jakina. Kanarietako diskoteka batean lan egingo zuen. Baina gehiagok gogoratuko dute Tolosako Beti Alai jatetxean, Lasarteko Txartel hotelean eta, batez ere, luzaroan, Txixtardin Beltza jatetxean.

Habanan zegoela, 2001eko martxoan, loteria tokatu zitzaion eta Guanaboko uretan, oinak hondarpean zoru galdu eta itotzen hasi zen, lagunek ospatzen ari zelakoan. Kubatar batek salbatuz zuen. Felixek dena ematen zien lagunei, eta beltzei, eta kubatarrei, berari ere dena eman ziotelakoan.

Felixen etxea zen euskaldunentzat enbaxada Habanan. Nori ardura zitzaion *Zulueta* eta *Cárcel* izkinako jauregi erraldoi ederrustekoa, Felixen apartamendu txikia zabalik bazegoen!

Ustekabeko sorpresaren bat izaten zuen beti helduberrarentzat:

-Txipiroiak tintan jango dituzu!
-Karibean ez dago txipiroirik.
-Ez dagoela? Hortxe, itsasertzean erosi ditut ba nik.

Euskal enbaxada eta jate-txea, tabakorriaren merkatua eta batzorde bolibarianoa, San Mames eta organo orientalaren katedrala. Eta zorionaren filoso-

fia, edozein ezkinatan baitzegoen Felix bizitzaz harriturik eta pozik.

Aurreko uda hasieran, autoan eraman zuen Habanaruntz. Ekaitz izan zen gau horretan eta apenas lo egin nuela esan nion.

-Nik ere ez diat lorik egin..., esan zidan.

Ni ekaitza mendebaldetik heldu zela, eta berak:

-Ez, Barakoatik etorri duk!

Nik metereologiaz eztabaidatzeko gogorik gabe:

-Baina, fuertea izan da eh...

-Ikaragarria!

Eta Plaiako 94 kaletik ia Vedadorako tunelera joan ginen solasean ni eguraldiaz eta bera gaueko larrutaldiaz.

-Gaur ere ezin izango diat lorik egin, baina trankilito.

-Ekaitza joan duk, Felix?

-Ez, etxean geratu duk, bihar hartuko dik autobusa Barakoara itzultzeko.

-Jode, Felix, ni eguraldiaz ari ninduan,

-Jujuju, hi haiz hi kalekumea!

Halakoa zen gure laguna, artoski gordetzen genuen adiskide-bildumako ale ordezkazina.

Joseba Sarrionandia, Habanatik (Idatzi hau NOAA!ra eta Argiara igorri zuen aldi berean).



Aginagan, Zubietan, Usurbilen... Txoko guztietan ongi etorri beroa egin zitzaien Olentzerori eta Mari Domingiri.



Azken asteotako irudi bilduma osoa esteka honetan topatuko duzue: noaua.eus/argazkitegia

#PRAKTIKATUetaBIZI



MINTZATALDEAK - GURASOLAGUN - IKASTAROAK ETA TAILERRAK - TXANGOAK - MINTZODROMOAK

USURBILGO Mintzalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo, euskalduna izanda, euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

Mintzataldeak. 5-6 laguneko taldeetan biltzen gara euskaraz egiteko, disponibilitate, adin eta zaletasunen arabera.

Gurasolagun. Familientzako mintzataldeak dira; jolasak, txangoak eta tailerrak egiten ditugu, helduak eta haurrak batera.

Ekintza osagarriak antolatzen ditugu, besteak beste; txangoak, tailerrak, mintzodromoak... Euskaraz egin eta lagun berriak ezagutuko dituzu.

eta guztia DOHAINIK

Zatoz gurekin!

607 609 379 / 943 360 321

www.mintzalagun.blogspot.com

usurbil@aeek.eus

Mintzalagunak Gara | Facebook

Sustatzaileak



Usurbilgo Udala

aeek

Etumeta Euskaltegia

noa.ua


www.noa.ua.com

praktikatu
euskaraz egin eta
lagun berriak



Euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioak larunbatean

Iaz dispersioa eta gurasoak espetxean zituzten motxiladun haurren eskubideen inguruan jarri zuten arreta gunea. Aurtengoan, gaixorik egon edota adinduak direnengan. Testuinguru honetan, larunbaterako (urtarrilak 13) deitu du Sare mugimenduak manifestazio bana Bilbon (La Casillatik) eta Baionan (Laugatik). 17:00etan abiatuko dira, "Orain presoak" aldarripean.



Bilbon eta Baionan egingo dira bi manifestazioak.

BUS ZERBITZUA USURBILDIK

**"Urtero moduan,
autobus zerbitzua
antolatu da Usurbildik.
Izena aurrez eman
ohiko tokietan"**

Hitzorduoi begira, dispersioa eta adinekoak hizpide nagusi hartuta, mahai-ingurua antolatu zuen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak abenduaren 19an Sutegin. Urtzi Errazkin Etixerat-eko bozeramailea, Javier Ondo medikua eta Mari Karmen Anza, Olatz Lasagabaster presoaren ama gonbidatu zituzten hitzordura.

"Asko agurrik esan gabe doaz" Sufirimendu hau gizarteratzea ezinbestekotzat jo zuen Errazkinen proiektzioaren segidan egin zuten solasaldian zehar. Eta horretan "denok dugu zeregina" nabarmentzen zuen.

Bidegabekeria honekin

amaitu beharra aipatzen zuen medikuak. "Dispersioak arriskuan jartzen du presoen bizitza, baita ingurukoena eta are gehiago, adinekoen osasuna. Egoera honi bukaera eman behar zaio".

Hainbat datu plazaratu zituzten. Presoen adina gorantz doa, 25 preso badira 60 urtetik gorakoak, beste 3, 70 urte bai-

no gehiago dituztenak. Gaixo direnak; 40 urtetik gorako 30 preso, eta 60 urtetik gorako beste 13. Presoekin batera, paraleloki adinean aurrerantz doaz senideak ere. Sarritan, 500-800 kilometro arteko bidaia luzeak egin beharrean aurkitzen dira. Errepidearen egoera, eguraldia, preso nola egongo den, bisitatik nola aterako diren, osasunak noiz arte ahalbidetuko dien senide preso bisitatzea... Horrek guztiak estres fisiko eta psikiko handia eragiten badio pertsona orori, are gehiago kolektibo honi.

Urteotan hamaika euskal preso senideak hil dira, "asko agurrik esan gabe doaz".

Xuak, Olatzek, Patxik eta senideek sufritzen duten egoera

Hurbileko amona baten lekukotzaren berri jaso zuten Sutegira joandakoek; Mari Karmen Anzarena. Bere alaba Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta haien haur Xuarekin, Usurbildik 600 kilometro segitzen dute, Valentziako Picassent espetxean. Dagoneko zigorraren hiru laurdenak beteak izanik, baldintzapean aske eta Usurbilen behar luketen arren.

Kasu zehatz honetan ere isla argia du senide gaixoen eta adinduen gaiak. Batetik hor dago Xua. Urtebete barru, 3 urte beteta, Picassenteko espetetik irten beharko du. Amona egingo da bere kargu. "Ardura baino poz askoz handiagoa izango da", zioen Mari Karmenek Sutegin.

Olatzen amonak ordea 92 urte ditu, "duela 6 urte biloba ikusten ez duela". Birbiloba ikusteko irrikitan dago. Patxik ere amona bizirik du, baina "atxilotu zutenetik ez du ikusi". Senideok, Olatz, Patxi eta Xua ikusi nahian dira, baina ezin. Ez daude Valentziako Picassentera eta handik buelta egiteko, 1.200 kilometroko bidaia egiteko osasun baldintza egokietan.

Santuenean, egunean bertan ospatzen dute San Tomas



Usurbilen, egun seinatuaren aurreko igandean ospatu ohi da beti. Santuenean ordea, egunean bertan, abenduaren 21ean. Txistorra banatzeaz gain, taloa egiten aritu ziren ludotekaren kanpoaldean. Barrukaldean aldiz, abenduan zehar eginekiko eskulanak ikus zitezkeen.

%10eko konpentsazioa Oiardo kiroldegiko 2019ko abonuetan

Usurbilgo Udalak kirol instalazioetako abo-
nua berritzeko gutuna
helarazie die jada bazkideei,
2019rako informazio prakti-
koarekin batera. Iaz bezala,
%10eko konpentsazioa iragarri
du Udalak, urte honen hasiera
baldintzatuko duten igerile-
kuko obrek “eragindako kaltea
nolabait arintzeko”.

Igerileku berria, apirilerako erabilgarri

Hortxe 2019rako datorren ber-
rikuntza; egun itxita dagoen
igerileku berriaren irekiera.
Apirilerako erabilgarri izatea
aurreikusten dute. “Lanak mar-
txa onean doaz, eta dena ondo
bidean, martxoan amaitzea

aurreikusten da. Horregatik,
azken orduko gorabeherarik
ezean, Udal Kirol Departamen-
duaren asmoa da apirilean ber-
tan irekitzea igerilekua eta ho-
rrekin batera ikastaroak abian
jartzea”, berri eman dute Usur-
bilgo Udaletik.

2018an eginiko inbertsio ga-
rrantzitsuena izan dela nabar-
mentzen dute Udaletik; guztira,
767.642 euro. Foru Aldundiak
257.800 euroekin lagunduko
du egitasmoa. Urriaz geroztik
egiten ari diren hobekuntza
lanen “helburua da igerileku
txikia irisgarri bihurtzea eta
handitzea, eta modu horre-
tan egungo erabilera-mugak
konpontzea. Horretarako, ba-
tetik, igerileku txikira sartzeko



Apirilean zabalduko dute igerilekua.

koxxa kendu egingo da, oztopo
handia baita ezintasunen bat
dutenentzat, eta igerileku han-
diaren maila berean jarriko da.
Eta, bestetik, handitu egingo
da, Kiroldegiko sarrerari zati
bat kenduta. Halaber, lan ho-
riek baliatuko dira, ikusten ez
den eta igerilekuaren azpian
dauden instalakuntza guztiak
berritzeko (tutueriak, galdarak,
berogailuak...). Premia handia
dute horretarako”.

Tripontziaren zozketa

Gure Esku Dagok ia 100.000
euro banatuko du dirutan
(60.000 euroko sari nagusi
bat gehi beste 34.000 euro 23
sartan banatuak), urtarrila-
ren 21ean ospatuko den Tri-
pontzia, Urteberriko Sariari
esker.

Txartelak salgai

Zozketarako txartelak salgai
dituzue 5 eurotan, Artza-
bal, Benta, Bordatxo, Gu-
ria, Zendoia, Laukote eta
Opil-Goxon. Txartelean,
“Elkarrekin Together” filma
deskargatzeko kode zenba-
kia eskuratuko duzue. Gune
guztietan erosi dezakezue
baita 5 euroren truke, Gure
Esku Dagoren 2019ko egute-
gia. Argazkietako bat Usur-
bili eskainia dago.

Harane, futbolari gaztetxoek lagun arteko joko zelaia



Talde bakoitzak antolakuntzaren oroigarri bana jaso eta taldeko argazkia aterata ekin zioten jardunaldiari.

Harane futbolari gaztetxoek
lagun arteko joko zelaian bi-
lakatu zuten abenduaren 29an,
Usurbil F.T.-k antolatuta eta
Kutxabank-en laguntzaz, Ga-
bonetako 5. Futbol Txapelke-
tari esker.

Jolaserako prestasun handia
zuten kirol talde ezberdinetako
gaztetxoak bildu zituen hitzor-
duak. Usurbil F.T.-rekin batera,
Billabona K.E., Urnieta K.E.,
C.D. Baztan K.E., Usurbil F.T.,
Orioko F.T., Pasaia K.E., Anti-

guoko K.E.-koak. Talde bakoit-
zak antolakuntzaren oroigarri
bana jaso eta taldeko argazkia
aterata ekin zioten jardunaldiari.

Errifa zozketa

Segidan dituzue, Usurbil F.T.-k

antolaturiko gabonetako errifa
zozketako zenbaki sarituak:

- 1. saria (Bruño mariskoak): 6.413.
- 2. saria (Marije denda): 1.310.
- 3. saria (Saizar Sagardote-
gia): 4.123.

Eskubaloi jaialdia, Mirotzen omenez



Sari banaketarekin amaitu zen Oiardoko eskubaloi jardunaldia.

Mirotzen omeneko infantilen arteko 11. Eskubaloi Txapelketa jokatu zen abenduaren 29an Oiardo Kirolegian. Primerako giroa bizi izan zen goizeko 9:00etan hasi eta 20:00ak arte luzatu zen Usurbil K.E.-k antolaturiko jaialdian, eta egunean zehar jokatu ziren lagun arteko partidetan. Sari banaketarekin amaitu zuten jardunaldia.

Atezain onenak

Uxue Ugalde (Anaitasuna).
Ander Lizarazu (Usurbil K.E.).

Jokalari onenak

Ainhoa Busto (Anaitasuna).

Julen Begiristain (Usurbil K.E.).

Sari bereziak

Txapelketako epaileak, DYA,
Usurbil K.E.-ko kide Muñoz.

Sailkapenak, infantil neskek

- 1-Aiala Zarautz K.E.
- 2-Anaitasuna
- 3-Usurbil K.E.
- 4-Basauri ET
- 5-Tolosa CF
- 6-Bera Bera

Sailkapenak, infantil mutilak

- 1-Bera Bera
- 2-Usurbil K.E.
- 3-Amenabar Zarautz K.E.
- 4-Anaitasuna
- 5-Tolosa CF
- 6-Basauri ET

Eskubaloia kirolegian

Urtarrilak 12. larunbata Eskola Kirola

- 09:30 Alebin neskek:
Udarregi 5B-Urnieta 5B
Udarregi 6C-Urnieta 6A
- 10:30 Infantil neskek:
Udarregi B-Aloña Mendi B
- 11:45 Infantil neskek:
Udarregi A-Egia 1
- 13:00 Infantil mutilak:
Udarregi B-Argiki

Usurbil K.E.

- 16:00 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Learning Out Corazonistas
- 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Learning Out Corazonistas
- 19:00 Kadete neskek, Territoriala: Usurbil K.E.-Urnieta

Errifa zozketa

Gabonetako errifa zozketa ere egin du Usurbil Kirol Elkar-teak. Hemen sarituen berri:

- 1. saria (otar handia):
-Zenkari saritua: 1.978.
-Saritua: Aitor Uribitarte (Zarautz).
- 2. saria (otar txikia):
-Zenkari saritua: 721.
-Saritua: Javier Azpiazu (Oñati).
- 3. saria (arkumea):
-Zenkari saritua: 1.106.
-Saritua: ?.



Aitor Uribitartek irabazi zuen otar handia.



Javier Azpiazurentzat izan zen otar txikia.

Futbol partidak

Haranen

Urtarrilak 12, larunbata

- Alebin mutilak:
09:30 Udarregi 5B-Landaberri 5
09:30 Udarregi 5A-Urnieta 5A
10:30 Udarregi 6B-Sasoeta 6
10:30 Udarregi 6A-Urnieta 6A
- 11:45 Infantil mutilak:
Usurbil B-Texas
- 15:00 Kadete mutilak:
Usurbil F.T.-Danena KE
- 17:15 Erregionalak:
Usurbil F.T.-Danena KE

Urtarrilak 13, igandea

- 10:00-12:00 Futbol Eskola (2010): Usurbil F.T.-Antiguoko KE

2018, urrezko

urtea Judo

Klubarentzat

Guztira 120 domina eskuratu ditu eta garai-pen gehiago Usurbil Judo Klubak, joan berri zaigun urtean. Ur-



tea borobiltzeko bi albiste pozgarri; batetik, abenduaren 22an judo klubeko kide Mafer Carazasek Caceresen jokaturako senior mailako Espainiako Txapelketan eskuratutako brontzeko domina batetik, "domina honek Maferren maila altua erakusten du kirol jarduera honetan, bere junior mailako lehenengo urtea izanik". Bestalde urrezko domina eskuratu berri du Ion Martinek Berlineko masterrean. Argazkia: Usurbil Judo Kluba.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA

ENE

taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzera. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komun. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitzak 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trasteleku eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komun, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Erdialdean pisua alokatzen da, 2

gela, egongela, sukaldea, komun eta trasteroa. Dena kanpoaldera. Hiru balkoi eta igogailua. Tif: 670070562

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekabixi kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearrekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorpuzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz errete-gian. info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila da-



Zorionak Ibai!

6 urte bete dituzu urtarrilaren 8an. Txokolatadan lagunekin ondo ondo pasa! Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



Zorionak Garazi!!!

Urtarrilaren 2an 9 urte bete zenituen. Muxu potolo bat etxekoan partez.

OHARRA: 2018ko urtarrilaren 18an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urtarrilaren 14an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

bil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketari. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauetan, baita eritxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketari edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketari egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketari orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauean, asteburutan,

externa bezala edo garbiketari lanean. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziarekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketari lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketari egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

BESTELAKOAK

4 gurpildun karro elektrikoa salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrituentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Bilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Mandarina japoniarrak saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 10 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 12 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Urtarrilak 10 - Urtarrilak 20

Osteguna 17 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 18 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda

urtarrila

11 ostirala

12 larunbata

13 igandea

■ **Autobus zerbitzua Bilboko "Orain pre-soak" manifestaziora.** Izen ematea aurrez ohiko tokietan.

■ **Haurrentzako zinea euskaraz: "Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa".** 17:00etan Sutegin. Sarrera: 3 euro, egunean bertan salgai.

"Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa" filma igandean Sutegin

Urtarrilaren 6ko jai eguna tarteko, astebete atzeratu da orainoan, negu parte honetarako abian den haurrentzako euskarazko zine zikloko hila-bete honetako proiektzioa; igande honetara (urtarrilak 13) hain zuzen. 17:00etan hasita Sutegin, "Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa" pelikula. Usurbilgo Udalak Zior-tza G.E.-rekin elkarlanean antolaturiko emanaldirako sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai 3 eurotan.



Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai, 3 eurotan.

"Leo Da Vinci, pintore eta buruan ideia ugari duen asmatzaile gaztea, Mona Lisarekin, sute baten ondorioz etxea galdu duen neskaekin, erabat maitemindu da. Leok lagundu egin nahi dio eta egoera konpon dezakeen abentura zoroa eta zirraragarria planeatu du. Urte batzuk lehenago Montecristo uhartetik gertu

hondoratu zen piraten itsasontzia topatu nahi du ustez barruan dagoen altxorra berreskuratzeko. Altxor hori lortuz gero, Mona Lisaren arazoak konponduko liritekeela uste du. Ondorioz, lagunekin batera, erraza izango ez den bidaiari ekingo dio. Baina ez dira altxorra topatu nahi duten bakarrak izango".

Bidaien diaporama lehiaketa Buruntzaldeko gazteentzat

Urnietako Gazte Informazio puntuak II. Bidaien Diaporama Lehiaketa jarri du abian eskualdeko gazteen mugikortasuna sustatzeko helburuz. Modu honetan, gazteek azken urte hauetan bizi izan dituzten esperientzia interesgarrien berri emateko modua izango dute.

Izena emateko epea: urtarrilak 25

Izena emateko eta lanak aurkezteko epea urtarrilaren 25ean amaituko da. Ondorengo leketan egin daiteke:

- Lekaio kultur etxea (Urnietan).
- Urnietako Udalaren webgunea:

www.urnieta.eus

Datozenak

Urtarrilaren 20an, Aginaga 'Herri Txiki, Infernu handi' saioan

Duela aste batzuk, Euskal Telebistako "Herri Txiki, Infernu Handi" saiokoak Aginagan egon ziren. Urtarrilaren 20an gaueko 22:00etan ETB1ean eskainiko duten emanaldian Aginaga eta Aginagako hainbat lagun agertuko dira.

"Andatzako garai bateko okupazioa" hitzaldia Potxoenean

Andatza mendigunearen inguruko okupazioari buruzko azterketa eta interpretazio arkeologikoa egiten ari dira eta aurten hamargarren prospekzio kanpaina egin dute. Bertan egindako lanak eta lortutako emaitzak azalduko dituzte hitzaldi batean.

- Urtarrilak 22 asteartea, 19:00.
- Hitzaldia: "Andatzako garai bateko okupazioaren azterketa eta interpretazio arkeologikoa".
- Hizlariak: Manu Ceberio Rodriguez eta Izaro Quevedo Semperena (Aranzadi Zientzi Elkartearen historiaurreko Arkeologia Sailekoak).
- Tokia: Potxoenea.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patxi Jateketa

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO



KE TA MA



KETAMA

musika taldeak

“Hau da
Usurbilgo

Saizar

sagardo

berria!” esanaz,

2019^{ko}

TXOTX

denboraldiari hasiera
emango dio.

Musika eta dantza **Korrontzi**

Bertsolaria

Andoni Egaña

Aurkezlea

Nerea Aguado

2019ko **Urtarrilaren 10**ean, osteguna, **20:00**tan

OHARRA: Soilik sarrera izango dute
erreserbatutako mahaiek.

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan **ITXITA**

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsagardotegia.com



IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2019, primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA

aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA



943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea